Zuberoatik itzuli zirenean alemanek, aitaren lantoki Hôtel Continental hori, Pariseko Kommandantura, legez kanpoko auzitegia kokatu zutenean, aitzak alemanen ez zerbitzatzeko SOM Berliot bere bulebarreko optika langegi batean lanean sartu zen, baina halere laster alemanek beste langile anitz bezala beren agindupean, bere ohiko lanera itzultzera bortxatu.

Hortik dator Jon Mirande idazlearen ingurunean alemanenganako baita nazien aldeko ikuspegia ez zela batere goxoa.

Alderantziz, Jon gerra ondoan eskuin muturreko bretoi abertzaleekin adiskidantzak egiten zituen hala nola Georges Pinault alias Goulven Pennaod. Gizon hori presondegi egonaldiaren ezabatzeko Indotxinara joan zen eta han Diên Biên Phu zelaieko guduan Jean Marie Le Penekin paraxutista gisaz, parte hartu, eta Pennaod kapitain itzuli zen, bestalde indoeuropar linguista ona izan zen; beste laguna Roger Hervé alias Glémarec geografo ospetsua zen eta Pariseko Biblioteka Nacionalean mapa kontserbatzailea; *Breizh Atao* talde horretako bretoi abertzaleek uste izan zuten Alemania naziak Frantzia zatikatuko zuela eta Europa berri bat, eskualde autonomoak federatuz, sortuko zela.

Pariseko karriketari gerra horretako aztarnak ikus eta irakur daitezke. Adibidez Capri karrikako 2. an Mirande familia hurbil bizi zen lekuan Gestapoak 1944. urteko abuztuaren 16. an Jean-Pierre Dudrasail hogeita bat urtekoa Gazte Gristino Erresitantziako Gudaria, fusilatu zuten. Dudrasail eta Mirande haurrak ber eskolan ibiliz eta jostatuz, auzune berdinekoak eta gizarte giro berdinekoak izan ziren. Zerk bultzatu zuen gure idazlea ideologia jarrera horretara bi gerla handiek ukitu familia batean eta arreba Gazte Gristinoa izan zelarik demo-kristau familia batean, nahiz frantses guztien gisa denbora batez, Pétain mariskalaren aldeko lokarria izan, lehen Gerlako irabazleen artean izan zelako. Eskuin muturreko jarrera horrek Parisen familian, lanean eta Eskual Etxean harremanak pozoindatu zizkion eta hola baztertua ez zuen jendarte maitagarriarik aurkitzen *Ker Breizh* izeneko bretoi kultur elkartean baizik.

## Miranderen ikasketak eta lan bizitza

Pariseko Place de la Nacioneko Arago lizeoan beka baten bidez. Gure urtetan % 67 gazteek erraz diploma kausitzen dutelarik, 1930 urteetan % 3, eta Miranderen urteetan % 4. Emaizta horiek oso garrantzitsuak dira Miran-

de anai arreben kasuaren kokatzeko: Simonek 1939.urtean kolegioko *brevet* diploma lortu zuen baina bulego idazkaritzara bideratu, aldiz Jonek 1943 filosofiazko “bachot” edo baccalauréat ukan eta urte baten buruan Finantzetako Ministerioan sartu, gerra amaitzekotan zelarik eta beste ikasketa gehiago egin nahi gabez. Alta, gurasoek desiratu zuten berek eduki lan eta bizimodu hobea izan zezaten. Adiskideek eta askaziek aholkatu arren, nahiz gai zen lanpostu gorago baten ukaiteko lehiaketa batera aurkezteko ez zuen nahi izan. Agian, garai hartan bezala ez zukeen Jonek lagunekin eta irakasleekin harreman errazik izan, bera ez bezala, aberaskumeak zirelako, baina irakatsi zitzaiona seriooki gogoan sartu zitzaion: Txomin Peillenek dio filosofia irakasle batek Joni Nietzsche eta Spengleren ezezkortasunak irakatsi omen zizkion, baina bachotik landa ikasi zuen handiena beregain izan zen.

Bizi osoan Mirande maila aski beherako funtzionarioa izan zen eta hilabete saria (soldata) arabera. Haren gutunetan maiz sos gabezia agertzen da; hola-xe, diruz urri bere eleberria *Haur Besoetakoa* itsasoz igorri zuen, ez hegazkinez.

Haren olerki batean ongi ezaguna eta ikertua izan dena *Paris-Beuret* bere lehen lan lekuaz mintzatzen da. Ministerioaren bazter bulegoak ziren Montparnasseko Institut Pasteur aldean Beuret jeneralaren karrikan, Paris 15.an. Mirandek lankideekin eta buruzagiekin eztabaidak eduki omen zituen berandu iristen baitzen edo ez etortzen eta joaten zenean ez zuen lan aitz egin, luzaz telefonatzen omen zuelako eta euskaraz (Txomin Peillenek dio ez dela hala zeren Mirandek erraten baitzuen euskaraz ez hitz egiteko eta hitzordu bat harturik ostatu batean hizketatzen zirela) Ezin dugu esan zenbat denboraz iraun zuen baina harentzat lana sufrikario lekua izan zen, zeren bere aldia etortzen zenean leihatilara joan behar baitzuen zergen hartzera. Euskal literaturak ez ote dio zor Finantzetako emakume lodi, itsusi edo meheren artean olerkian aipatzen dituen Ministerioari, Mirande bere denbora erdiko lan ordutan bere pausuak literatura sorkuntzari ematen baitzizkion eta ez ote da horregatik leihatila baten atzean egoteko behartuaz, zigortua izan?

Bestalde, bere olerkian aipatzen dituen emakume, itsusi, lodi edo mehe horien artean ez ote du Louise Blenny bere atsegin anderea ediren; berriz bere biziaren azken urteetan Louise dibortziatua ohe eta edate laguna berriz topatu. Lankideen artean ere zuen Jonek, Simonek eta bere seriotasunagatik estimatu, Michel Tauriac adiskide mina ezagutu.

## Mirande eta Pariseko euskaldunak

1954.urtean Piarres Charriton apaiza orduko euskaldunen kapilaua gazteei zuzendu Ekintza Katolikoaren adarra Pariseko *Eskualdun Gazteria* antolatu

zuen. Bi urteren buruan, kide haietako batzuek Pariseko *Eskual Etxea* egitasmoa gogoetatu; ohargarria da nola Baionako apezpikutegiaren babespean eta oroz gain zuberotarren gandik bildu diruarekin Paris 16.ean 10 rue Duban, garbitegi, latsagia ohi bat judu bati erosi zuten. Kantuak dion bezala “*Sor leküa ützi-rik gazte nintzalarik, Parisen sartü nintzan korajez beterik, plazerez gose eta büriian hartürik behar niäla alagera bizi*”.

Berdin egin zuen aurreko belaunaldiak baina Euskal Etxerik gabe. Zentro horrek gazteak baserritik hiri handira pasatzekotan lagundu nahi zituen gazteak lan ohoragarrietara buruz zuzentzeko eta joko, prostituzio lekua den Pigalletik urruntzeko.

Baina; ordurako Mirandetarrak Parisen sustraituak ziren. Ez olerkariak ez eta haren gurasoek, ez eta arreba aspaldian ezkonduak, ez zuten *Eskual Etxearekin* traturik izan: ama Etxea sortu eta bi urteren buruan hil zen eta aita elizkizun batzuetan ibili zen. Ohargarria da nola Robert Laxalt idazlea zuberotar artzain baten semea eta anaia Kaliforniako gobernadore eta Reaganen kontseilari izan zena, beraz Robert Laxalt hori Euskal Herrira etorri zenean itzultzaile baten beharrean *Eskual Etxea* Miranderengana zuzendu zen. Hortik, Robertekin gutun trukaketa jarraikia abiatu zen. Mirandek ordurako batzuekin kontaktu ezti-hotzak, gazi gezak zituen eta ez zuen *Eskual Etxearengan* itxaropen handirik, zekielarik Eliza kide zelaz eta kontrolatzen zuela. Ez Aldudeko Jean Chabagno misiolariak, ez eta Piarres Charriton, Pierre Lafitte apaizaren adiskide minetik, ez zuten idazle heterodoxo hori begi onez ikusten, kontrolatzen zuten *Elgar* aldizkarian haren olerki batzuk argitaratzea ukatu zioten. Mirandek ez zituen gogoko Pariseko euskaldunen gainean eragina zutenak eta ez zitzaion Etxe hartako giro “vasco- católico- gaullista” batere gusatzan; halere Piarres Charritonek Aristorenari aitortu zion *Eskual Etxea* eratu zenean, bere diru emaitza txikiarekin, gutun bat igorri ziola esanaz “euskaldun kulturak xokoñoa izanen duelako esperantzarekin”.

Louis Domecq urte luzez *Eskual Etxearen* buru izan zena eta etortzen ziren gehienen oroitzapena duelarik, olerkariak gomuta arina du: batzuetan hitzaldietara zetorrelako; gizon goibel eta isila zen eta ez zuen euskaldunen gizarateaz hurbiltzeko dohainik. Ez zuen izan harreman handirik Rue Singeren zegoen Eusko Jaurlaritzakoekin, Andima Ibinagabeitia adiskide handiarekin baizik. Bizitzaren azkenean Xabier Kintana idazleari erantzun zion euskaldunen mundutik baztertua sentitzen zela. Pariseko euskaldun zintzoek ez zuten batere ezagutzen. Aita hilez geroz eta Andima Ibinagabeitiarena jakinik, bere adiskide min Jon Etxaideri idatzi gutun batean dio “Zu eta Andima bizi zeno bakarrak izan zarete nitaz arduratu zaretenak”.

## Miranderen eritasuna eta heriotza

Ama 1958. urteko martxoan hil zitzaionean Mirandek zauri sakona izan zuen, hogeita hamahiru urteak beteak zituen; orduan infernura jaisten hasi zen; emeki emeki, apurka, usuago eta gehiago edariari eman zen.

Aita 1967. urteko otsailean hil zitzaion. Azken urteetan aitaren eta semearen erlazioak hurbilago izan ziren. Umezurtz, Mirandek bere etsipen eta depresioak whiskyan ito zituen. Bulebar Davouteko etxean, bigarren solairuan Aristorenari Ginette Liébeault andreak kontatu dio nola biziaren azken urteetan eguneroko mozkor zen. Garaian ez zen igogailurik etxe hartan, batzuetan eskailerak lauoinka igotzen zituen edo burua apal sartzen, batzuetan eskaileran lo egiten zuen, beti gorbata lepoan, eta maiz giltzekin eskuak ezin erabiliz. Ginetteren senarrak, Pierre Liébault Jonen eta Simonen haurtzaroko adiskideak bere pisura igotzen laguntzen zuen; biek bere apairuentzat eta etxe garbiketan laguntzen.

Ama hilez geroz Joni psikastenia ezagutu zitzaion. Ordudunik eta hil arte nerbioetarik eri, sendaketa bortitz egin zizkioten, hala nola Pariseko Pitié-Salpêtrière ospetsuan, baita azkenik Kastelin (Châteaulin) Bretainiakora joan zen, ezagutzen zuen Guy Etienne alias Abanna psikiatrarengana. Parisen bigabostetan, auzoek edo familiak deiturik etxeko medikuen bisitak izan zituen.

Jonen ilobak gogoratzen dira aitaren heriotzatik landa bere diru kartera (musa) galdu zuela. Moltsa hori Seineko ur bazterrean aurkiturik Angelié familiari helarazi zioten, eta Boulevard Davoutera joan ziren eta han Jon depresio bizian Whisky botilen artean biluzik topatu zuten; leihoko balaustreatatik soka bat zintzilik urka bilurra eginik. Guardiako medikua judua zenak harriduraz nazi liburuak eta hebreerazko franko baita hiztegi eta gramatika ikusi zituen. Gure sendagileak idazlearekin Angeliétarrek ulertzen ez zuten hebreeraz hitz egiten zuten. Handik egin batzuk, ospitaletik ateratzean mediku horri opari bat egin zion, baina sendagileak ez zuen zoritxarrez bere liburutegiak zerion arrazismoa sendatu.

Gurasoak hil ondoren eta Boulevard Davouteko *Bere Etxetik* kanporatu zutenean, familiarekin kontaktuak bakanago izan zituen eta denbora berean auzo berriekin harremanik gabe, baina beti bere lanean eta lankideekin ezongi. Parisen, Angelié eta Baujard familiek hartaz arranguratsen ziren eta bisitatzen, baina haren alkoholismoak eta depresio egoerak baldituak zeuden; etxe aldaketaren ondotik ilobek elektrofono berri baten eta magnetofono baten erostea aholkatu zioten, azken tresna hau ilobek aurkitu zutenean, hartan haren ahotsa grabatua ediren zuten. Henri Baujardek liburuentzako apalak egin zizkion. Pariseko euskaldunetz baztertua, Euskal Herriaz eta euskal giroaz etsitua zela gogoan, logailuen, edarien eta lehenagoko ohaide Louise Blenny bera bezain alkoholikoen menpeko bilakatu zen.

Olerkariak biziko azken urteak, hamabost eguneko loaldi baten eta beste sendabide bortitzen artean, aspertua, bakartua eta norazean. Euskal Herrira 1972. urteko azaroan joan zen. Lehengusinen arabera bizkor eta itxura oneko zirudien ibilaldi luze bat ere eman zuen mendian (Txomin Peillenen ustez txango sinbolikoa eta adioa, gogoan zukeen euskaratu zuen Nietscheren “Aus Hohen Bergen” olerkia.) Txomin Peilleni urte hartako azaroaren 6.an idatzitako postal batean irakur daiteke “*Baina asperturik nago, zinez, aldi buntan, Euskal Herriaz. Ez dakit noiz sarthuko naizen ez eta norai*”

Haatik, azken aldikoz Mirande Parisera sartu zen eta lanera joan. Urte azkeneko besta eta jaietarako familiak igurikatzen zuen, baina ohiko bazkari gonbitera ez zen etorri; Jonek telefonorik ez zeukalako ez zuten kontakturik eduki eta adiskideekin edo bidaia zegokeela pentsatu. Urtarril hasieran Tauriac adiskidearen beste gonbitera ez baitzen etorri ez eta hamabost egunez lanean agertu, gizon horrek arreba abisatu zuen. Senar emazteak atea irekitzean aurkituko zutena iragartzen zen frogatu zuten usain sendoan: Jon ohe gainean etzana zegoen Whisky botilak lurrian, barbiturikoak ohe mahaian eta Blenny ohe lagunak eskuz idatzi ohar bat “Jean je ne t’oublierai jamais” (Jon ez zaitut inoiz ahaztuko). Noiz idatzia olerkaria hil baino lehen ala geroztik? Simone eta Guy Angelié senar emazteek ez zuten beste seinalerik idoro. Louise geroago topatu zuen Goulvenn Pennaoden arabera, Jon agonian aurkitu zuen eta hark bakean uzteko erranik ez zuen medikurik deitu.

Gorputza, autopsiaren egiteko, Austerlitz geltokiari buruz dagoen lege funerariara eroan zuten. Poliziak peskiza txiki bat egin zuen. Forensearen txostenak dio: Jon Mirande 1972.ko abenduaren 28.an hil zitekeela eta irentsi alkohol eta barbiturikoak nahikoak izan zirela heriotzaren emateko. Ez zen, agian lehen aldia horrelako nahasketa egiten zuela; ez da argudiorik esateko “ixtripua zitekeela” edo bere buruaz beste egin zuela (ikus halere Blenny anderearen papera). Txomin Peillenek gogoratzen du Mirandek Henri de Montherlant suizidioa miresten zuela, saiatu zela bere buruaz beste egiten, baita olerki bat *Soneto* bere burua hiltzearen alde idatzi.

### Zer otoitz harentzat?

Loustau-Daudineri zuzendu eskutitz batean badago olerki bat *Soneto*, 1947.urtekoa zeinean dion:

*Ez ur bedeinkaturik ez latinez otoitzik apaiz (...) naizenean hilgo*

Halere, familiaren orritxo batean irakur zitekeen “ Priez pour lui ” otoitz harentzat. Izan ere ez baitzuen azken nahirik idatzi eta arrebak haren obra ez zuelako ezagutzen, bere familiako erlijio eduki zituen hiletak (ehortzetak).

Bestalde bere espiritu heterodoxo bilaketak gora behera familiako elizkizunetan hala nola iloben bataio eta komunio egoten zen (1952.an Christia- nen ugazaita izatea onartu). Duda gabe haren alde otoitz egin zen. Jon Etxai- de haren heriotzak sakonki hunkitua haren alde egunero arrosarioa erraten zuen eta Txomini idatzi zion “ haren ohoretan Donostiako Jesuiten elizan 1973. urteko martxoaren 4.ean euskarazko meza emango da, haren arimaren deskantsurako”. Dena dela Pariseko Eskual Etxeko elizkizunetan ezjakinare- na egin zuten. Paris sorleku, hazleku, ikasleku eta hil lekuan elizkizun baka- rra familiarena izan zen.

Hala, Elizkizuna 1973.ko urtarrilaren 15.ean astelehenez Ledru-Rollin hiribideko Saint-Antoine-des-Quinze-Vingts elizan eman zen. Berrogeita ha- mar bat jende bildu zen: familia, Louise Blenny, Michel Tauriac eta agian lan- kide batzuk eta familiak ezagutzen ez zituen beste lagunak. Erran behar da, nahiz Tauriac, Peillen, Hervé eta Pinault adiskideen garrantzia ezagutu, Simo- nek ezkondu baino lehen ez zituen inoiz ikusi. Txomin Peillen elizatik kanpo egon zen elizkizun hori olerkariaren nahien eta ideien aurka zelako. Ospaki- zuna labur eta hotz izan zen mezaren azkeneko eskandaluarekin: jendetza eta apeza isipua eskuan benedikatzen zuten bitartean identifikatu gabeko bi gizo- nek nazien gisa eskuineko besoa altxatuz ikusi zutenen harridura, haserre bai- ta nazka eta lotsa eragin zuten; bata Georges Pinault, olerkariaren adiskidea zitekeen eta bestea eskuin muturreko bretoia, Roger Hervé edo Yves Jeanne.

Handikeriarik gabe autobus eta auto batzuek jarraikia hil autoa jende apa- len hilerrira Thiais hirikora eroan zen gorputza. Lurperatzean Txomin Peille- nek sotilki hilobira aurtiki zuen Mirandek Kristoren aurka idatzi zuen oler- kia. Mirande gurasoen alboan 37. lerroan eta I2. linean hain madarikatu zuen gurutzearen azpian datza, kontzesioak irauten dueno, gero geldituko dena he- zurtegiara joanen da.

## **Jon Miranderen liburutegia eta diskotegia**

(Liburuaren azkenean lista osoa)

Jon Mirande hil zenean idazkiak, eskutitzak, liburuak eta diskoak, bere beste gauzekin arrebaren etxera eramán ziren Angelié familiak dena gorde zuen baita eskutitzak bost urteez. Inor ez zen harremanetan sartu artxibo horien ikusteko, gordetzeko eta baloratzeko. 1978.urtean zaintzeko legezko eginbiderik ez zegoelarik, liburuak eta diskoak sailkatu ziren, baina dokumen-

tuak eta gutuntegia Jonen intimitatearen begirunez irakurri gabe erre ziren, Simonek eta familia ez baitzekien haren literatura ospea.

Alain eta Christian Jonen ilobak Jon Miranderen seihun bat liburuen sailkatzeaz arduratu ziren. Parte bat (323) ENS École Normale Supérieure Christianek eman zituen, han baitzituen zientzia ikasketak egin eta Angelié emaitzaren zigilua dakarte; besteak arrebaren etxean begiratu ziren.

ENSi emandako liburuen artean hiztegi eta gramatika asko dago, alemanera, amazight, bearnera, bretoiera, daniera, errusiera, finera, gaelikoa, gaskoi okzitania, gaztelania, greziera, hebreera, hungariera, islandiera, italiara, katalanera, kornikera, nederlandera, turkiera. Familiak gorde liburuetan euskarazkoak eta euskal gaiak, Euskal Herria, zuzenki edo zeharki hunkitzen dituztenak begiratu, halaber frantsesezkoak eta hiztegi batzuk (alemanera, ingelera, gaztelania) baita turistentzako hiztegiak hiru hizkuntza horietan Jon Miranderen bidai zaletasuna erakusten dutenak; berdin gorde dira gogoko zituen beste gaietako liburuak: antisemitismoa, juduak, Israel, erlijioen historiak (budismoa, hinduismoa, katolizismoa), filosofia, historia, metafisika, parapsikologia, sorgintza, druidismoa, iratxoak, zombiak, deabruak, hipnosia, erotismoa, matematika, algebra, fisika, kimia, biologia, genetika... Bereizketa horretan Munchenen 1941 urtean argitaratu Hitlerren *Mein Kampf* baita nazien historiografiari buruzko liburuak ENSeko historialarien jakingarri eman dira; badago halere Georges Montandon eskuineko Louis-Ferdinand Célinen adiskide zen etnologoak idatzi: *Comment reconnaître un juif?* (nola ezagutu judu bat?)

Mirandek etxean eduki eta familiak atxiki zituen pyral edo mikroildo diskoak eta 78 t. ko bilduma aipagarria da. Melomano amorratua zen: Beethoven, Bach, Schubert, Mahler, Mozart, Vivaldi eta Wagner (joaldi desberdinetan), Karl Orff eta beste; zelden eta euskaldunen musikak, Narciso Yepes gitarrista, gregoriano; Alemania, Israel eta Errusiakoak III. Reich delakoaren historiarekin lotuak; *Histoire de France en musique* bilduma osoa; *Personnages et événements du XX<sup>e</sup> siècle*, Jean Marie Le Penen hitzaurre batekin “*La guerre d’Espagne*” Ignacio Balezterenaren *Oriamendi*, José María Garaten *Eusko Gudariak*, Juan Telleriaren *Cara al Sol*, baieta kantu eta doinuen artean ere Francoren eta José Antonio Primo de Riveraren hitzaldi zatiak. Frantses herri kantari hoberenak: Jacques Brel, Philippe Clay, Juliette Gréco, Germaine Montero, Colette Renard, Monique Tarbés eta Christophe Tisot, umoristak eta beste.

## Miranderen eleberriri buruz ohar berriak

*Bilbo Zabar* euskal kultura elkarteak 2010. urteko ekainaren 16. an idazlearen ohoratzeko berrehun jendeen artean *Haur Besoetakoa* eleberria egun osoz

irakurrarazi zuen. Mirandek 1959 urtean idatzia euskaldunen aurre zentsuraz nekez argitaratu zen; haren lehenbiziko argitaraldia *Lur* argitaldarian Gabriel Arestik 1970.urtean eman zuen familiak gorde duena. Bestalde ENS ari familia eman zion Miranderen liburutegian zegoen Vladimir Nabokoven *Lolita* ingeleraz, bi hizkuntzetan The Olympia Press ek Parisen 1955 argitaratua Estatu Batuetako argitaletxeek ezezkoa eman baitzioten halere horrek ez du erran nahi Mirandek orduan erosi zuela. Eskandaluagatik banatzea Estatu Batuetan debekatu zen baita Frantzian Yvonne De Gaullen arduraz; debeku horrek azkenean irakurketa eta banaketa lagundu zuen.

Bere eleberriaz Jon Mirandek Txomin Peilleni orduko grafian idatzi zion:

*:Aipatu nizun ipuina bukatuxerik dut – garbitan ipintzen ari naiz orain amar bat egunen buruko eginik duket. Luze samarra da “Alos Torrea” ren heinekoa gutxi gorabeera eta gaia oso” berezia” maitasun kondaira bat 30 urteko gizon baten eta 11 urteko nexka baten elkar maitatzea kondatzen duena, ots, euskarazko “Lolita” bat (naiz ez dudan zoritxarrez V. Nabokoven lanegiña irakurri aal izan)*

Hori dio Jon Mirandek. Erran behar da garai hartan Mirande 1958.ko martxoan amaren hiltzeak inarrosia izan zela eta bere sufrikarioa ematzeko asko edaten hasi zen. Zer zeukan gogoan Parisen belarriz belarri, baita obra eskuz esku kurritzen zelarik? Zer zeukan gogoan halako gai baten erabiltzeko? Ez ote zen irakurtzeko tentaldian erori? Txomin Peillenen ustez baliteke *Lolita* irakurri zuela, baina hala balitz ere Miranderen eleberrian erotismoa sentimenduekin lotua da, aldiz *Lolita* gehienbat pornografia bortitza. Nola nahi, Txomini behin laburzki aurkeztu zion gizon baten gertaeratik Jon Mirandek esan zion ipuin baten idazteko abiatu nahi zela.

## CHEZ LE POÈTE

(Olerkarienean) (1953)

(Entrevue radiophonique en basque avec A. de Ibinagabeitia à Radio-Euskadi<sup>1</sup>, entrevue qui contient son art poétique, traduction tx.p.)

—Jon, il paraît que vous achevez de peaufiner votre livre de poèmes, qui devra paraître bientôt<sup>2</sup>. Est-ce vrai?

Oui, c'est vrai. En effet depuis un mois, à la demande d'amis je m'y suis mis. Vous savez, sans doute, comment je débutai dans la poésie basque, il y a assez longtemps<sup>3</sup> mais au commencement ma langue poétique n'était pas comme elle aurait dû être, et mes idées sur la poésie n'étaient pas les mêmes qu'aujourd'hui. Depuis j'ai approfondi les richesses de notre belle langue et il fallait, absolument, que je change d'expression Voilà les deux buts de mon travail.

*A mon avis vous n'aviez pas grand chose à changer pour moi en tout cas les poésies que vous avez écrites jusqu'à maintenant sont dans une langue sonore, riche et de tous les côtés, bien pleine.*

Ne croyez pas; j'ai changé de nombreuses choses quant au langage et au rythme.

---

<sup>1</sup> Radio-Euzkadi était un émetteur anti-franquiste que le ministre de l'intérieur François Mitterrand fit interdire et dans la foulée avec la reprise des relations diplomatiques ce « florentin » donna à Franco le siège de la Société des Amis des Basques qui appartenait aux Basques républicains exilés.

<sup>2</sup> Bientôt? Le recueil écrit en 1953, paraîtra en 1976.

<sup>3</sup> Les usages triviaux. Cette tendance fut développée par l'école folklorico-régionale dite costumbrisme, alors que dans le passé et jusqu'au dix-huitième siècle des Basques eurent de l'ambition pour la langue basque, tels les poètes du seizième siècle, B. d'Etxepare, et J.P. de Lazarraga, et aussi les érudits du dix-septième siècle, notamment A. d'Oihenart.

*Pourquoi, à propos du rythme?*

C'est aisé à comprendre: nos poètes, suivant la tradition, n'écrivaient que des poèmes consonantiques. Vous savez que, mis à part la rime, il y a quelque chose qui donne au vers sonorité et écho c'est le rythme. Le rythme chevauche par-dessus les mots, et le choix des mots peut ajouter un rythme à l'ensemble de la composition.

Le rythme, parfois est apparent, d'autres fois moins perceptible parce qu'il utilise l'âme des mots. Donc, dans mes poèmes je distingue le rythme apparent et le rythme caché. Dans les écoles étrangères de poésie, ces temps derniers, cela est réapparu et je voudrais offrir à notre langue basque quelque chose de nouveau dans le genre.

Je n'ai pas écarté, totalement, la rime consonantique et certains de mes poèmes ont été composés dans cette voie, mais quant à moi je préfère construire mes vers en rime interne.

*D'après ce que je sais, quelques-uns, seulement, vous ont suivi dans cette voie.*

Certainement, Orixe par exemple dans ses traductions de "La vache aveugle", du "Lever du jour" et du "Cheval", il fit ses vers libres sans consonances, mais en essayant tant bien que mal, d'imiter la cadence latine et son rythme, mais pas suivant la nouvelle école contemporaine où nous aimons les rythmes sonores et les rythmes discrets.

Toutefois, je prenais plaisir avec la poésie d'Orixe et ses inventions, notre poésie en aurait bien bénéficié si elle avait suivi cette voie. Je suis d'accord avec vous à propos de la rime consonantique. Si nous eussions trouvé des poètes qui auraient réalisé la moitié du chemin et que nous aurions abandonné l'en-nui du moulin de la rime, nous serions entrés, plus tôt, dans les rythmes nouveaux. Mais nous pouvons, encore, écrire de bien belles choses en basque

*Le basque vous paraît-il fait pour la poésie?*

Oui, bien sûr, notre langue est faite pour la poésie. Bien que jeune, j'ai appris plusieurs langues, justement pour m'aider en basque. J'ai lu chaque poète dans le texte et il me semble que toutes les langues ne sont pas à égalité pour la poésie. Il ne semble pas que le français, l'espagnol ou l'allemand soient très adaptés pour le vers. Je crois que l'anglais est la langue la plus apte naturellement pour la poésie, c'est pourquoi les plus grands poètes sont ceux d'Angleterre. Je ne sais si c'est la langue qui fait le poète ou bien si c'est le poète qui façonne la langue.

De toute manière, il n'est pas apparu dans d'autres langues, des poètes comme ceux d'Angleterre. Il se peut que mon opinion soit trop personnelle, mais je vous le dis, pour que vous le reteniez bien.

En basque, vous pouvez trouver également une capacité comparable, pour l'écriture poétique, c'est pourquoi je prends plaisir à écrire mes poèmes dans notre langue

*Beaucoup de Basques ne vous croiront pas. Vous savez ce qui arrive chez nous les Basques s'imaginent que la poésie culte ne peut s'écrire que dans la versification populaire et pire encore, que l'on ne peut l'amender qu'avec l'engrais rural des chansons d'étables et de fumier. Vous connaissez les attaques d'Unamuno, n'est-ce pas?*

Unamuno ne savait pas le basque. Ses critiques n'ont aucune valeur. C'était, sans doute, un philosophe, absolument pas un linguiste. Ce qu'il a dit sur la langue basque est à rejeter, cela n'a ni fond, ni force.

S'il faut dire la vérité, vous savez bien que, rarement, nos savants et personnes cultivées ont donné de l'importance au basque, c'est ainsi que le peuple croit que le basque n'est bon qu'aux usages triviaux<sup>4</sup>. De plus, nos poètes, excepté quelques rares, n'ont traité dans leurs vers que des sujets très ordinaires et cela a provoqué de grands dégâts sur la langue de notre patrie.

*Vous m'avez dit, auparavant, que dans vos poèmes vous vouliez nous apporter quelque chose de nouveau quant aux sujets de vos poèmes?*

Vous avez raison. J'ai voulu faire quelque chose de la sorte dans mes poèmes vous ne trouverez rien qui provienne des poètes basques précédents. Je ne nie pas que nous ayons eu de bons poètes tels Orixe, Zaitegi, Iratzeder, Mitxelena, Erkiaga, pour ne citer que les vivants. Parmi nous Zaitegi a ouvert quelques voies nouvelles. Les autres aussi ont manifesté de la personnalité mais dans mes poèmes je n'ai traité que de thèmes écartés par tous les autres. Il n'est pas étonnant que mes prédécesseurs n'aient pas touché à de tels sujets, puisque la majorité était des gens d'Eglise et qu'ils ne pouvaient toucher à certains thèmes. Les poètes laïcs de notre Parnasse n'ont pas osé aborder ces sujets pour ne pas toucher les religieux.

Vous savez que la plupart des Basques considèrent que mes poésies sont un peu dures et libertines. Pour beaucoup j'ai été un vif scandale, mais par delà les récriminateurs, je ne peux renier mon for intérieur. J'ai écrit comme je ressentais et mes compositions sont à tout instant les reflets de mon âme.

J'ai traduit là mes amours, mes déviations amoureuses, mes croyances et superstitions. Sur la philosophie j'ai exprimé tel quel tout ce que j'ai compo-

---

<sup>4</sup> Bernard d'Etchepare publia en 1545 un recueil de poèmes qui contenait quelques compositions assez érotiques, mais depuis cette entrevue, et récemment, on retrouva les œuvres du seigneur de Lazarraga qui ne sont pas moins libres et que, Mirande, mort trop jeune, ne connût pas.

sé, tel que j'ai compris. J'ai retourné en tous sens mes plaisirs et mes espérances davantage de désespérances parce que notre vie est pétrie de désillusions.

La plupart de mes poèmes vous paraîtront pessimistes il ne peut en être autrement puisque l'optimisme n'est pas monté jusqu'à mon cœur, si, parfois, je l'ai connu cela se cristallisera dans mes vers. J'essaierai de faire que mon œuvre devienne ma vérité intérieure. J'ai réussi en cela même si certains se sont scandalisés.

*Jon, vous aurez à l'esprit ce poète basque que vous connûtes à Saint-Sébastien. Lui aussi, me déclara que vos poèmes sont les vifs témoins de votre vérité intérieure. Il admirait, aussi, dans vos poèmes la force de cette vérité, tel que l'avez découverte et sentie. Nos poètes, à l'exception de Bernard Etxepare furent trop hypocrites couvrirent, et noyèrent leurs désirs, intérieurs. Ils n'ont pas eu le courage d'exprimer virilement leurs rêves et leurs doutes et bien des œuvres des autres me paraissent sèches et très superficielles. Cette force de vérité je ne l'emploie pas dans le sens de la vérité philosophique. Nous avons besoin d'elle et de toutes parts, vous êtes le plus à féliciter.*

*(...) Mais à propos, mon ami, combien de poèmes dans de livre?*

Vingt-sept, comme mon âge actuel. J'ai déjà composé la plupart de mes poésies. J'en écrirai cinq ou six de plus pour compléter le nombre dont j'ai rêvé.

*Quels sont vos poèmes préférés?*

Et bien, "Loup", "Le tambourin d'Ortzi", "A un chien mort" et "Nil igitur mors est". "Loup" fut composé sur une croyance métaphysique au pentagramme. Le "Tambourin d'Ortzi" suit un flux panthéiste et l'érotique "Oïanone" (Bonnaulit) me plaît davantage sous sa nouvelle version. Mais ce n'est pas à moi d'apprécier mes compositions, mais c'est le travail des lecteurs.

*Et les lecteurs, quand aurons-nous le plaisir de vous lire?*

Le plus tôt possible. Je rencontre de grands obstacles, déjà, sur mon chemin, mais avec l'aide de quelques amis, je les vaincrai tous et bientôt mon petit livre sera entre les mains des Basques et des bascophiles.

(C'était le soir. Neige blanche et ombres grises, mélangées tombaient sur Paris. Je devais rentrer. Le jeune poète m'accompagna jusqu'à la bouche du métro et en nous saluant nous mêmes fin à notre conversation à bâtons rompus. )

## OLERKARIENEAN

Aurten Jainkoak baletsa, euskal literaturak mendeak zear ezagutu duen argitaldirik garaiena ezagutuko du ezbai gabe. Emen Parisen gaurdaino izan ez dugulako olerkari bat bere poemak orrazten ari da leen bait leen irarkolara igortzeko. Dagoeneko, euskalzaleen artean ezaguna da noski olerkari gazte au, euskal idazle eta benetako euskalzaleen artean. Gure liburu eta aldizkarien ardua gabe bizi direnek ez dute ezagun, eta euskaldun geienak orrela bizi zaizkigu zoritxarrez.

Olerkari andi au Jon Mirande da. Ementxe, Paris eder onetan jaio zen eta ementxe bizi izan da beti. Ogeitasei urte baizik ez ditu gazte jator onek. Gurasoek, aurzarroan ez zioten euskararik irakatsi, baina Mirande gazteak, ogei urte zituenean euskal odolaren deia bere baitan entzun zuen eta euskara ikastera soin eta gogo jarri zen. Laster ikasi zuen bere arbasoen izkuntza eta egun gure olerkarien artean garaienetakoa da. Aren etxean, gainera, ez da arrez gero euskara baizik entzuten. Aren guraso maiteak ere xuberoeraren doinu ezitia darie-la ari dira. Bai, pozgarria Paris onetan euskeraren abi ain beroak aurkitzea.

Lenengo igandez, gure irratientzule maitei berri emateko asmoz, olerkari gaztearen etxera urbildu nintzen arratsaldeko iruretan, oitu tenorean. Antxe zegoen, beti bezela, liburuz inguraturik tximiniko egurrari gar-epela zerion bitartean. Oitu agurrak egin ondoren ark niri

Kafetxo bat hartuko duzu Andima?

*Bai pozik nere Jon. Kanpo aldean otz dago eta nolabait barrena berotuko dit. Milesker*

Martel kopatxo bat ere ez zaigu gaizki jinen, harek.

*Ez noski. Orrekin berotu ez ezik gure gogoetak eta itz-iturria ere pizkortu aal izango ditugu. Alkohola neurriz, zuzpergarria omen da beti ere. Gainera itz aspertu luze bat egitekotan natorkizu eta Martel itz-iarle egokia da izan ere.*

Eta supazter inguruan eseri ginen, elur bisutsak Parisko teilatu eta kaleak astintzen zituen bitartean, gure izketa asteko.

*Poema liburua orrazten ari omen zara, Jon, laster argitaratzeko.*

*Egia al da?*

Bai egia da, izan ere. Hilabetez gero hortara jarri nintzen, adiskide zenbait tek eskatu zidatelako. Zuk ondo dakizu aspaldi hasi nintzela olerkiak euskaraz egiten. Baina hasieran nere euskara ez zen behar bezalako. Poesi asmoak ere ez ziren nire egungoak bezalakoak. Harrez gero gure hizkuntza ederra sakonkiago ikasi dut eta behar-beharrezko nuen nere olerkien hizkera aldatu eta maiz zuzentzea ere. Horra oraingo nere arloa.

*Nire ustez, Jon, ez zenuen aldaketa eta zuzenketa andirik egin bear izango noski. Niri, beintzat, orainarteko zure olerkiak, ozen, aberats eta ertze guztietatik borobil iduri izan zaizkit.*

Ez uste. Gauza aunitz aldatu behar izan dut, euskarari eta ritmuari buruz batez ere.

*Zergatik ritmuari buruz?*

Erreza da entelegatzea. Orain arte gure olerkariak kontsonantez baizik ez dtuzte beren poemak antolatu. Ondo dakizu hots kidegoaz gainera badela beste zerbait neurritzak ozen eta durrunditsu bihurtzen dituen, ritmua alegia. Ritmua hitzen gaindi dabil eta hitzen aukerak olerki osoari ritmu hori erantsi diezaioke. Batzutan agiria da, besteetan ez hain nabaria

Hitzen arimari eta itsatsita baitabil. Beraz ritmu nabaria eta ritmu izkutua bereziko nituzke nere olerkietan. Erbesteko poesi eskolak ageri zaizkigu azken aldi hauetan. Eta nik ere horrelako berri zerbait egin nahi nuke gure euskaraz. Ez dut bazterreratu, egia, hots-kidegoa zeharo nere poemetatik, eta poesia zenbait kontsonante bidetik adalatu ditut. Baina nerez maiteago dut hitzen barne-ritmuan eraiki poesia.

*Nik dakidanetik, beste gure olerkari batzuk ere ibili dira zuk diozun bide hortatik: asko ez, baino baten batzuk.*

Bai: Orixek esaterako, era orretara antolatu zituen zenbait itzulmen: “Behi itsua”, “Olarite” eta “Zaldia”. Hots-kidego edo kontsonante gabe egin zituen olerkiak, baina latindarren neurriari nolabait jarraituz, ritmua beti ere, ez ordea oraingo eskola berrian maite dugun ritmu ozen edo ixil horri jarraituz.

Atsegin zitzazkidan, niri beintzat, eta Orixek asmatu bide aietatik gure olerkariak ibili izan balira probetxu haundia aterako zuten gure euskarak eta poesiak ere.

Ni ere zurekin nago. Hots-kidego edo kontsonantismoaren kalaka aspergarria utziko genuen behintzat eta gerora ritmu berrietan errexago sartuko ginen eta egungo poetak biderdia baino geiago eginda aurkituko genuen. Baina oraindik gauza eder asko egin ditzakegu euskaraz.

*Olerkirako ain egoki aal derizkiozu euskerari?*

Bai horixe. Euskara egin-egina da poesiarako. Nik, gaztea izan arren, zenbait hizkuntza ikasi ditut, euskerari laguntzeko hain zuzen. Poeta bakoitza bere hizkuntzaz irakurri dut eta hizkuntza bakoitza neurri berean, ez zaizkit egoki irudi. Frantsesa, espainera eta alemanera bera ere uste dut ez zaizkit hain tajuzkoak iruditzen. Ingelesa dela uste dut poesia hizkuntza tajuzkoena. Neretzat Englanden bezalako olerkaririk ez da beste hizkuntzetan sortu. Bali-teke neurekoiegi izatea ustekizun hau, baina jakinaren gainean diotsut. Euskararen baitan ere Englanderaren antzeko gaitasuna aurkitu dut poesian eta horregatik atsegin zait euskaraz olerkiak idaztea.

*Euskaldun askok, nonbait, ez dizute hori sinestuko. Ondo dakizu gurean zer gertatzen den: euskaldunek euskara bertso berrietan soilik erabil daitekeela uste dute, goi mailako poesian ez. Eta okerrago oraindik, zimaaur eta ikulu gantzaz baizik ezin daitezkeela ondu. Ondo dakizu Unamunok erasiak. . .*

Unamunok ez zekien euskerarik. Unamunok erasiak ez dute batere baliorik. Gizon hori filosofo zen beharbada, inola ere ez hizkuntzalari edo linguista. Harek euskerari buruz esanak arbuiagarri dira, ez dute batere funtsik ez indarririk. Egia aitortu behar dizut, zuk nik bezain ondo dakizun egia: euskara gutitan aintzat hartu dute gure jakintsu eta eskolatuek, horregatik gure herri xeheak ere euskara gai arruntenak erabiltzeko baizik ez dela uste du. Gure olerkariak gainera, guti batzuk kenduz gero, gai arruntenak besterik ez dituzte erabili beren poemetan.

Lurbira zabaleko eta jakintza maila orotako gai den errankizunik ez dute inoiz ere poemak ernarazteko erabili. Eta honek kalte handia sortu dio gure aberri hizkuntzari.

*Lehentxeago esan didazu, Jon, poesi-gunari buruz zerbait berri ekarri nahi diguzula zure poemetan.*

Bidez diozu. Horrelako zerbait egin nahi esan dizut. Nire poemetan nireak baino lehen euskaraz idatzitakoan eraginik ez duzu aurkituko poesia mui-nari begiratuki. Ez dut ukatu nahi olerkari bikainak ere izan ditugunik: hor daude Orixe, Zaitegi, Iratzeder, Mitxelena, Erkiaga bizidunak bakarrik aipatzeko, guztiak olerkari garaiak. Zaitegik beharbada, gure artean diren bide berriak urratu ditu. Besteek ere pertsonalitate nabaria ageri dute. Baina nik nere olerkietan orain arte erabili ez diren poesi-gaiak hartu ditut. Ez da harritzeko nik darabiltzadan gaiak nire aurretiko euskal olerkariak ez erabiltzea; gehienak eliz-gizonak izan dira eta ezin zezaten zenbait sujeta ukitu ere. Eliz-gizon izan ez diren beste olerkari asko ere, herabe ibili dira gure Parnasoan zenbait gai ukitzeko beldurrez. Ukitu badituzte ere apaizak uki zitzake-

en neurritz uki zituzten. Ondo dakit nire poemak gogorxko eta gordinxko ere aurkituko dituztela euskaldun gehienek. Askorentzat eskandalu gorri ere izango dira. Baina beste esamesak direla eta, ezin niezaiokeen neure barneari ukorrik egin. Nere poemak nik sentitu bezala idatzi ditut eta momentu bakoitzean nere arimaren erreinu bizi dituzu. Poematan irauli ditut nere maitasun, maitakeria, sinismen eta sineskeriak. Filosofiari buruz ere nereak oro iaulkiki ditut, neuk entelegatu eta pentsatu bezala. Hantxe irauli ditut neure atsegin eta etsipenak ere. Etsipenak ugariago, gure bizitzaldi hau etsipenez oretua dela esan bait-daiteke. Ezkorregi irudituko zaizkizue nire olerki gehienak. Ezin litezke bestela izan ere baikortasunak ene bihotzean oraindik ez bait du igo. Inoiz hots egiten badu nire barne hortan, hori ere nire olerkietan gatzatuko dut. Ene barne egia izan ditezen ahalegindu naiz. Hori bederik iritsi dut, zenbait eskandalizatuko badira ere.

*Gogoan dukezu, Jon, uda betean auskeztu duzun Donostiako olerkari handi hura. Ark ere orixe esan zidan: zure olerkiak zure barne egiaren lekuko bizkorrenak zirela. Ark ere orixe haundiesten zuen zure poemetan: barne egiaren indarra, zerorrek sentitu eta atzeman bezela. Gure olerkariak —Bernard Detxepare ez beste guztiak —maltzurregi ibili dira beren barneko nabikariak estali eta itotzen ere. Ez dute gizonki beren amets eta ustekizunak azaltzeko kopetarik izan eta orregatik zenbaiten lanak utsal eta azal samar ageri zaizkit. Egi-indar hori —ez darabilt hemen egi filosofi zentzuz—, beharrezko genuen, eta alderdi orretatik zure lana goragarriena duzu. Oriek orrela; zein hizkera hautatu duzu zure poemak ontzeko?*

Nik lapurtar klasikoa onartu dut. Garbi mintzatu natzaizu honetan. Adis-kide hertsu gara eta ez zaizu gaitzituren. Hizkera hori onartu dut galde pertsonalak kontuan hartu gaberik, ororen gainetik batasuna behar dugulakotz eta dialektu hori delako horretarako egokiena. Hori ene aburua da, jakina, ez zurea edo Orixerena. Halaz ere, aburu zintzoa dela irudi zait. Villasante Kortabitartek esposatu dituen zioak ezin arbuiatuzkoak direlakotz. Orixegipuztalezaleak edo Lafitte nafar-lapurtar berri zalezaleak beren objektzioak aurkez bitzate, konbentzitu nahi banaute okerrean gagozela lapurtar klasiko zalezaleok. Baino orain arte entzun dudan objektzioe bakarra hau da: euskara zailago egiten dugula... Egia denik ez dut nik uste, baina egia balitz ere zer? Gizalاندun hizkera beti zailago da, ezen ez baserritarrena. Galdera da: euskal giza landurik nahi ote dutenentz. Nik hizkuntza eli bat ikasi ditut, hizkuntza zalezale naiz eta; baina ez batetan, ez bertzetan ez dut gure euskara bezalako literatur-ezik aurkitu eta zure bihotz zolan hori egia dela badakizu, zuk ere beste hizkuntzazko literaturak ikertu baitdituzu. Nik uste dut lapurtar klasikoaren aldeko higikun hau dela izan, euskara kultur-bidean jartzeko azken urte haue-tan egin den saiaketa handiena. Eta zuk, euskalzalezale zintzo izanki, zergatik hainbat arbuiatzen duzun eta zergatik ez zaion jarraitu nahi ez dut ulertzen.

*Adiskide bertsi gara, Jon, esan duzunez. Baina lapurtar klasikoaren auzian gogortxoegi mintzo zatzaizkit, ez dut higikun hori oraindik arbuaiatu. Bebar bada ez dituzu irakurri bigikun orretaz Alderdi aldizkarian idatzi ditudan artikuluak. Antxe azaldu nituen nire asmoak eta aburuak. Geroago Gernikan urrengo au idatzi dut“ Ez da inolaz ere arbuia garri Bilbotik datorkigun argi berria, lapurtar klasikoa, alegia.“ Baina ez duzu miresteko, Jon, lapurtar klasikoz idazten duten zenbait atsegin ez bazaizkit, ez lapurtar klasikoz idazten dutelako, bebar beste euskalki zentzurik ez daukatelakotz baizik. Bertzalde zure lapurtar klasikoa begiko zait izkera orretaz ere bikainki ari zarela. Villasante Kortabitarten idazkera ere maite dut, euskal senez jantzirik dagoelako, zurea bezala.*

*Nik ere gogotik har nezake lapurtar klasikoa, beldur naiz, ordea, zaartxoegi izaki, euskara zaar berri orretan pulunpatzeko. Ez nuke zuek bezain trebeki eta antzetsuki idatziko. Euskararen batasuna inork eta ezer baino maiteago dizut, adiskide, eta lapurtar klasikoaren oinarrietan egingarri dela baneki, ni ere bide horretatik oldartuko nintzateke, neke eta izerdi askoren truke ere. Orra, ironi doinu gabe, nire egia lapurtar klasikoari buruz. Baina onetaz aski adiskide. Zenbat poema izango ditu zure liburuak?*

Hogeitazazpi nahi nituzke, nire urteak bezain beste. Gehienak ondurik dauzkat, batzuk lehen argitaratuak, bertze batzuk argirat oraindik ilki-gabeak. Bospasei poema berriago ere idatziko ditut nik amestu kopurua betetzeko.

*Orain arteko zure olerkietan zein dituzu maiteen?*

“Otso” “Ortziren ttunttuna”, “Zakhur hil bati” eta “Nil igitur mors est” Otso, uste metafisiko baten gainean eraiki dut. Ortziren ttunttunak badu panteista jarioa... Oiaone ere orrazkera berrietan atsegin zait. Baina neri ez dago kit nere poemien auskeztea, hori irakurlearen lana duzu.

*Eta irakurleak noiz izango dugu zure olerkiak irakurtzeko atsegin bete?*

Ahal dudan lasterren. Oztopo haundirik aurkitzen ditut bidean, baina adiskide zenbaiten laguntasunarekin behaztopa guztiak goituko ditut, eta nire liburutxo laster esku artean erabil ahal izango dute euskalzale eta euskaldunek ere.

(Arratsa zen... Elur txuri eta itzal goibela naas-maas Parisen gainean usu erortzen ari ziren. Etxera bear nuen. Olerkari gazteak metro-aoraino lagundu ninduen eta antxe, elkarri agur eginaz, arratsalde guztiko hitz aspertu au eten genuen.

Metro estazioa irentsirik bere bide lasterrean zijoan. Artean ni pentsa pentsari nengoen. Noiz dituzkegu Jon Mirande bezelako eun gazte euskalzale eta abertzale jator? Ordu onetan amaikatxo gazte zoro ardandegiz ardandegi ibiliko dira Euskal Erri maitean eta landan ere, euskara eta aberri direnik ere oroitu gabe beren osasun eta ondasuna galtzen. Gazteak, gazteak, ikus eta ikas ezazue. ) Ibinagabeitia'tar Andimak



## HITZAURRE ANTZO

(Lapurtar klasikoz)

Adiskide batek eskatu deraut ene euskal olerki, aldizkarietan han-hemenka argitarazi edo orain arteo argitarazi gabekoetan haukera egin eta neure usteko hoberenak bilduman eman ditzadan. Euskaldun irakurleak jarraian dasta ta goza ahal lizantzat. Irakurle maiteak asko gozatuko dituenetz zalan-tzan nago... Halarik ere, eskatu izan zaitan bezala egin dut eta hor doazkitzue, beraz, nire „Hogei eta....Poema“hautatuak.

Zergatik idatzi izan ditut? Gogoak hala eman zerautalakotz nabaski. Behin Euskaldun – eta – Fededun batek haxe egotzi deraut- erderaz jakina; egoki denetik, euskaraz ez baitzekien.. „Uste al duzu Euskara ta Euskadi gaizkatuko dituzula, olerki pantheistak idatziz? „ Ez jauna, ez dut hori uste. Daukat Euskara ta Euskadi gaizkatzea lehen jo-muga ukhan behar lukeela Euskal-herritar jathor orok; ene aldetik, jo-muga horren irixteko, guduka guztietara gerthu nago (gudukiderik non, ordea?) bainan, neurthizketan dihardudalarik, bertzerik dut gogoan: oroz lehen nihauren eta gogaide bakhan batzuen atseginerako idatzi ditut ene poemak –hots- «for the happy few». Aithorr dut poeta on batek, den pantheista ala papista, ez dakharrkeola herriari... pelotari on batek baino onura gehiagorik. Hain zuzen ere, ene neurthitz ok ez ditut onurarako eginak, solhazerako baino; zilhegi baitzaiku noizik behin jo-muga gurenak aldebat utzita, zolhazik nolaerebait bilhatzea.

Nire poema hauk irakurri ondoren, bildur naiz zenbaitzuen bizar veneragarriok asarrearen asarrez zutituko zaizkidala dena lizunkeria eta blasphema merkhe naizelakoan. Zer nahi duzue? Ene asmoak ene ametsak, ene oharrtikasiak hartu ditut idatzgaitzat, idazle guzien areriora. Balaiteke zuenak bezain argi ta garbiak ez izaitea. Txit negar-egingarri zait bainan...neureak dira eta atxikia natzaie.

Neholaz ere ez nuke nahi, haatik, zuen bihotz aratzak ni naizela zio urdint litezen. Hori itzur-ehi da, ordea: aski duzue ez irakurtea; ez natzaizue batere aiherr izanen?

Mihi gaiztoek, aldiz, erasiko bide dute euskaldun antz handirik ez dutela nire olerkiok. Egia dateke; beharbada euskaldunago agiriko zen, erraiterako ene «Jauregi hotzean» hunelako laukoetan eman ukhan banu

Oi !zer bihotz min eta zer zorthe tristea

ezkon berri batentzat senharra galtzea.

Nigarretan urtzen da oi! Andre gaztea.

Urrikal zakiola Jainko Jaun maitea! E.a.

Norberaren dohainen araura ari behar eta, bertsolaritzaritza uzten derauet antze horrtarako jaio direnei. Horregatio, ene olerkitxo bitxi ta minkorr hauk Euskaldun batak edo bertzeak adimen eta irudimen-atsegingarri eridenen dituelako itxaropena edukiten dut. Mirandé'tar Jon'ek

## EN GUISE DE PRÉFACE

(Hitzaurre antzo, Jon Mirande)

(Cette préface fut écrite en basque par l'auteur  
en préambule au recueil préparé en 1953)

Un ami m'a demandé de publier mes poèmes basques dispersés dans les revues et de faire un choix, également dans les inédits, pour mettre dans ce recueil mes compositions préférées, afin que le lecteur puisse les goûter et les apprécier. Je ne sais si les chers lecteurs y prendront plaisir. Cependant, j'ai fait comme il me fût demandé, et vous avez là mes vingt et quelques poèmes choisis.

Pourquoi ai-je écrit? Evidemment, parce que cela me plaisait. Un jour, un prétendu Basque et catholique (Euskaldun= fededun) me lança, bien sûr en français, car il ignorait le basque «Croyez-vous sauver la langue et libérer Euzkadí (sic) lorsque vous écrivez des poèmes panthéistes?» «Non Monsieur, lui dis-je, je n'ai pas cette prétention. Libérer l'euskara et le Pays Basque devrait être le premier but pour tout authentique habitant de notre pays. Quant à moi je serais prêt à tous les combats (mais où sont les autres volontaires?)»; alors, tandis que je m'occupe à versifier, j'ai autre chose à l'esprit d'abord j'écris ma poésie pour mon plaisir et celui de quelques compagnons de pensée (gogaide), bref «for the happy few». Je reconnais que, un bon poète, qu'il soit panthéiste ou papiste, n'apporte pas plus de bienfait à sa patrie... qu'un joueur de pelote. Justement, mes vers ne sont pas faits pour le profit, seulement pour la distraction: qu'il nous soit permis de quitter les idéaux suprêmes, pour, en quelque manière, rechercher le divertissement.

Je crois que, après la lecture de ces poèmes, la vénérable barbe de quelques-uns se dressera sous l'effet de l'indignation, parce que je suis plein d'impudicité et de blasphèmes.

Que voulez-vous? J'ai pris comme thèmes de mes pensées, mes rêves, mes observations, comme tout écrivain. Il se peut que mes pensées ne soient pas aussi limpides et pures que les vôtres. C'est infiniment regrettable, mais ce sont les miennes et j'y suis attaché. Je ne voudrais pas que vos chastes cœurs soient par ma faute troublés, mais, toutefois, il est facile de l'éviter ne me lisez pas, je ne vous en voudrai pas

Les médisants, au contraire, vont probablement gloser que mes poésies n'ont rien du style basque. C'est possible et cela aurait pu être plus basque si j'avais écrit en style populaire de chansonnier mon poème «Jauregi hotzean» (Dans le froid château) sous la forme d'un quatrain simpliste de la sorte

«Oh! Quelle peine de cœur et quel triste sort!

Pour une jeune mariée de perdre son mari!

Elle fond en larmes, oh! La jeune dame,

Que le Seigneur Dieu en ait pitié! »

Chacun doit produire, selon ses dons et je laisse l'art des chansonniers (bertsolaris) à ceux qui sont assez adroits pour le pratiquer. C'est pourquoi, si dans mon imaginaire, dans mes petits poèmes étranges et amers, un Basque ou l'autre aura trouvé quelque plaisir, je garderai espoir.

# THANATOS



SONETO<sup>I</sup>

(Sonnet) (1947)

Fondu d'ennui. Tais-toi mon cœur!  
 Oublies les peines et les larmes de cette vie.  
 La douce mort les emportera tous  
 J'aurai demain pour lit l'argile froide<sup>2</sup>

Asperduraz urturik, txo ! Nire biotza  
 Bizi ontako minak eta negarrak aaztu  
 Erio goxoak denak eramango ditu  
 Oetzat izango det biar buztin otza

Hommes, parmi vous j'ai vécu étranger  
 Ceux que j'aimais ne m'ont pas aimé,  
 Les meilleurs amis sont restés muets  
 J'ai vainement prié les Cieux.

Gizonak zuen artean bizitu naiz arrotza  
 Maitatu nituenak ez naute maitatu  
